

- ASTEKO GAIA -

Krisialdiak ez du armen negozioa geldiarazi

Zamudioko ITP enpresaren ekoizpen militarra salatzeko KEM-MOC talde antimilitaristak egindako ekintza, iazko azaroan.



Armagintza

KEM-MOC

Espainiako Estatua zortzigarren lekuan dago armak eta defentsarako materiala esportatzen dituzten herrialdeen munduko rankingean. Azken datu ofizial eskuragarriak 2008koak dira eta, datu horien arabera, mila milioi euro inguru fakturatu zituen iaz sektore horrek. Fakturazioa 2007koaren oso antzekoa da eta 2006koa baino %10 handiagoa. 2000. urtearekin alderatuta, %573koa izan da hazkundera.

Daniel Udaltz



Espainiako Estatuan, aireontzi militarrek (goiko irudian, Eurofighter Typhoon hegazkina) eta gerraontziak (eskuineko koadroan, Alvaro de Bazan modeloko fragatak) dira armagintza sektoreko produktu salduenak.

KRISIALDI EKONOMIKOAK, era batera edo bestera, ia sektore guztietan eragin du eta nonahi daude enplegu-erregulazioko espediente edo EEEdak. Alabaina, azken hamar urteetan armagintzaren negozioak hazkunde ikaragarria izan du Espainiar Estatuan; negozioan, gainera, hainbat euskal enpresek hartzen dute parte (ikus 9. orriko koadroa). Armen eta defentsarako materialen esportazioak 2008an 2000n baino %573 gehiago izan ziren. Hala, armen eta defentsarako materialen mundu mailako zortzigarren esportatzaile nagusi bihurtu da Espainiako Estatuak. Iaz 934,4 milioi euroko fakturazioa egin ondoren lortu du postu hori, eta esportazio horiek izan dira historian egin dituen handienak. Munduko esportazioen %2a osatzen dute, eta bere merkataritzako balantza osoaren %0,5a.

Datuek agerian uzten dute Espainiar Estatuak 2000. urtean hasitako armen eta defentsarako materialen esportazioa hasieran geldoa izan zela, baina geroz eta handiagoa eta etengabea dela. Ikusi besterik ez dago 2008. urteko esportazioak %10etik gora gehitu zirela 2006. urtearekin alderatuta. 2009. urte honetako datu ofizialik ez daukagu oraindik eskura, baina hala ere, krisialdiak ez dio sektore horri eragin. Horren adibide, ondorengoa: armagintzaren sektoreko beste zenbait enpresetan gertatu den bezala, Zamudioko Industria Turbo Propulsores (ITP) enpresak EEE bat aurreikusia zuen, baina azkenean ez du aplikatu.

**2008ko arma esportazioak
historiako ugarienak izan ziren
Espainiako Estatuan, eta munduko
arma esportazioen %2,19 osatu
zuten, herrialde esportatzaileen
rankingeko zortzigarren lekuan
kokatuz**

Informazio ofiziala ez da gardena

Armen eta defentsarako materialen esportazioei buruzko zenbakiak ezkutu samar egoten dira eta ez dira inoiz jakitera ematen. Salgai horiek nora esportatzen diren ere ez da aztertzen, askotan herrialde pobreetara, gerran daudenetara edo sistematikoki giza eskubideak urratzen dituztenetara esportatzen dela jakinda ere. Espainiako gobernuko Sekretu Ofizialen Legepean jartzen ditu esportazio horiek. Eta enpresek ez dituzte inola ere datuak erakutsi nahi. Nolanahi ere, zorionez badira hain ohikoak izaten diren iluntasun eta opakotasun ofizial horiek argitasun bihurtzeaz arduratzen diren pertsona eta gizarte erakundeak. Hor daukagu, adibidez, Tica Font, Justicia i Pau erakundeko lehendakariorde eta Bartzelonako Centre d'estudis per a la Pau JM Delàs zentroko ikertzailea. Azken urteetan urtero egin du Espainiar Estatuaren defentsa arloko esportazioei buruzko txostena. Orain arte ezagutu dugun azkenekoa, *Informe 2008. Exportaciones españolas de material de defensa 1998-2007*, 2008ko urrian eman zuen argitara.

Erreportaje honetako datu garrantzitsuenak txosten horretatik atera ditugu. Txostenaren iturri nagusia, berriz, Turismo eta Merkataritzako Estatu Idazkaritzak egin eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak urtero argitaratzen duen dokumentu bat da: *Estadísticas españolas de exportación de material de defensa, de otro material y de productos y*

Legez kanpokoak izan daitezkeen esportazioak

Espainiak 1998. eta 2008. urteen artean egindako arma eta defentsarako materialen esportazioek batez beste urtean 39 milioi euroko irabaziak utzi dituzte. Zenbateko hori, hala ere, 2008. urtean lortutako 934,4 milioi euroko zenbatekotik oso urrun geratzen da. Hala ikusten da Tica Font aditu katalanak egindako azterketan. Espainiako Estatuak, 2008. urtean munduko rankingean 1997an baino atzerago egon arren –garai hartan seigarren lekuan zegoen–, esportazio bolumen handiagoa lortu zuen 2008an 1997an baino. Bestela esanda, 2008ko esportazioak historia guztian egindako ugarienak izan ziren, eta munduko arma esportazioen %2,19 osatu zuten guztira, hau da, mota horretako balantza komertzialaren %0,51.

Salduenak aireontzi militarrek izan ziren 1998-2008 aldian; saldutako guztiaren %32 osatzen dute horiek, dirutan 970 milioi euro. Aireontzi militarren atzetik gerraontziak dira gehien saldu direnak; esportazioen %29 osatzen dute, hau da, 855 milioi euro. Hirugarren lekuan, irudiak sortzeko ekipoak edo kontramedia-ekipoak daude (kamerak, irudi infragorri edo termikoak osatzeko ekipoak eta radarretarako sentsore-ekipoak); esportazioen %11 osatzen dute horiek, 318 milioi euro, alegia. Laugarren lekuan daude erregai eta lehergai militarrek, esportazioen %10arekin (292 milioi euro). Bosgarren tokian, lehergailu, lehergailu su-eragile, torpedo, auto, ogiba-mutur, misil eta sakonera-kargen esportazioak (esportazioen

%7 eta 198 milioi euro). Azkenik, seigarren lekuan daude ibilgailu militarren esportazioak, esportazioen %6arekin (186 milioi euro).

Esportazioen hartzaile nagusiak hauek dira: esportatutakoaren %36 EBra joan da eta %35 garapen bidean dauden herrialdeetara. Armen esportazioak kontrolatzeko Espainiako lege berriak ezartzen du ez zaiela armarik saldu behar zigortuta dauden, ezegonkorrak diren, gatazka armatua daukaten, giza eskubideak urratzen dituzten edo ongizate egoera kaskarra duten herrialdeei. Baina hala ere gatazkan dauden herrialdeetara (Kolonia eta Israelera adibidez) eta tentsio oneak dituztenetara esportatzen da (Filipinetara, Indonesiara, Sri Lankara, Kenyara edo Tailandiara). Gatazka eta gerretan parte hartzen duten herrialdeetara ere

bidaltzen dira armak, besteak beste Iraken eta Afganistanen legez kanpoko okupazio-tropak dauzkaten AEBetara eta Erresuma Batura. Munduko herrialde pobreenek ere, Burkina Fasok, Angolak eta Mauritaniak adibidez, jasotzen dituzte armak. Gastu militarra, gizon-emakumeen garapenera baino diru gehiago bideratzen duten herrialdeetara ere esportatzen da: Angolara, Saudi Arabiara, Brasilerara, Ekuadorrera, Arabiar Emirerri Batuetara, Jordaniara, Pakistanera eta Turkiara. Armen esportazioa kontrolatzeko lege berri hori kontuan hartuz, Tica Fontek galdera bat uzten du airean: “Nola interpretatu behar ditugu aipatutako herrialdeetara egiten diren esportazioak?”.

ESPAINIAKO DEFENSA MINISTERIOA



tecnologías de doble uso, año 2008 (Defentsarako materialaren, bestelako materialaren eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien 2008. urteko esportazioen Espainiako estatistikak). Arma motzen eta arinen kasuan, Tica Fontek Kanpo Merkataritzako Espainiako Institutuaren ESTACOM datu-basea erabili du txostena egiteko.

2008ko datuak

Parlamentuko galdera bati erantzunez Espainiako Diputatuen Kongresuan aurkeztutako datu ofizialen arabera, Espainiak egindako armen esportazioek 934,4 milioi euro fakturatu zituzten 2008an, 2007an baino %0,2 gehiago. Europar Batasunera (EB) esporta-

tutako armen kopurua ohi baino txikiagoa izan zen 2008an: esportatutako kopuru osoaren %40,7 –2005ean %59,8 esportatu zen EBra eta 2004an %79,6–. Baina hala ere, EBko herrialdeei saldutakoak 380,6 milioi euroko irabaziak ekarri zituen, 2006 eta 2005. urteetako salmentek baino handiagoak –urte horietan 241,9 eta 251 milioi euro lortu ziren, hurrenez hurren–.

Bestalde, NATOko herrialdeek xurgatu zuten esportazioen %70,5. Nabarmenezkoa da Norvegiako Itsas Armadara esportatutako hirugarren fragata –Norvegiatik 265,7 milioi euro bildu ziren, hau da, %28,4–. Aipatzeko modukoak dira halaber AEBetara egindako esportazioak –22,4 milioi euro, %2,4 alegia,



Legeak kontrakoa dioen arren, gatazkan dauden herrialdeetara armak saltzen ditu Espainiak. Esaterako, Kolonbiara eta Israelera (irudietan, Israel eta Kolonbiako soldaduak).

aireontzien zati eta pieza, itsasontzi, tanke, misil eta arma txikiengatik–.

Gainontzeko salmentak –EBko eta NATOko herrialdeetara egindako lehen esandako esportazioak kenduta gelditzen diren 263,7 milioi euroak, hau da, %28,2a– beste 40 herrialdeetan egin ziren, batez ere Marokon. Salmenta horiek 113,9 milioi euro fakturatu zituzten, %12,2. Saldutako gaiak: 1.015 lur-orotako ibilgailu, anbulantzia eta blindatu gabeko zisterna-kamioi, sua itzaltzeko kamioi eta garabiak. Aipagarriak dira tropak garraiatzeko Brasilera bidali zituzten

bi hegazkinak (63,4 milioi euro, %6,8) eta zeregin berdinerako Kolonbiara bidalitako beste hegazkin bat (31,1 milioi euro, %3,3).

Bestelako materialak ere esportatzen dira; hala nola, polizia eta segurtasun materiala esportatuz 25,6 milioi euroko irabaziak lortu ziren 2008an. Material horiek Angolarara (24,3 milioi euro), Boliviara (1,1 milioi euro), Venezuelara (155.942 euro) eta Kubara (8.190 euro) bidali ziren.

Ehiza eta kirol armei dagokienez (ehiza eskopetak, kartutxoak eta pieza eta ordezeko piezak), 2008an egindako esportazioekin 29,8

Euskal enpresek parte hartzen dute negozioan

Estatuan armamentua ekoizten duten bederatzi enpresa garrantzitsuenetatik gutxienez lau euskaldunak dira. Lau horiek, arma-produktuen hainbat osagai edo programa egiten dituzte. Hala azaltzen da beste aditu katalan batek, Arcadi Oliveresek, Espainiako arma produkzio eta esportazioari buruz 2002an egindako txostenean. Hauek dira aipatutako enpresa horiek:

✓ Zamudioko Industria Turbo Propulsores (ITP): hegazkinetako motorrak eta turbinak egiten ditu.

✓ Arabako Gamesa Industrial: osagaiak eta material konposatuen azpimultzoak egiten ditu hegazkin militarrentzat.

✓ Getxoko Sener: ingeniariatzako hainbat programatan parte hartzen du.

✓ Explosivos Alaveses (EXPAL): Gasteizko planta orain dela bost urte itxi zuen eta gaur egun Madrilen dauka bere egoitza soziala. Morteroetako granadak, jaurtigaiak, lehergailuak eta espoletak ekoizten ditu.

✓ Bederatzi enpresa arma ekoizle garrantzitsuen artean ez badago ere, Sociedad Anónima Pla-

cencia de Armas (SAPA) dugu armagintzaren sektorean diharduen beste euskal enpresa garrantzitsu bat. Kanoiak egiten ditu.

Espainiako Estatuko gainontzeko enpresa arma-ekoizle garrantzitsuenak hauek dira: Construcciones Aeronáuticas (CASA), Izar Construcciones Navales (orain dela urte gutxi arte talde honetan sartuta zegoen Sestaoko La Naval), General Dynamics-Santa Barbara, eta Iveco-Pegaso. Madrilgoak dira guztiak.

Arma enpresen atzean akziodunak daude eta akziodun horiek ere probetxua ateratzen diote negozioari. Hauexek dauzkagu akziodun garrantzitsuenen artean: Alcatel, Amper, Banco Zaragozano, Caja de Ahorros Provincial de San Fernando, Caja Madrid, Daimler-Chrysler, El Corte Inglés, Ericson, Iberia, IBM, Nissan Motor Ibérica, Rolls Roice, Siemens, Banco Santander eta Telefónica. Euskal enpresa batzuek ere, Banco Bilbao Vizcaya Argentariak (BBVA) eta Construcciones y Auxiliarios de Ferrocarrilesek (CAF) esate baterako, badauzkate akzioak armak ekoizten dituzten zenbait enpresetan.

milioi euro eskuratu ziren. Salgai horietako gehienak AEBetara (5,8 milioi euroko irabaziak), Ghanara (2,8 milioi euro), Turkiara (1,9 milioi), Ukrainara (1,8 milioi) eta Ginea Conakryra (1,8 milioi) bidali zituzten. Azkenik, 2008an egindako erabilera bikoitzeko esportazioak %35 igo ziren 2007. urtean egindakoekin alderatuta, eta 154,24 milioi euroko irabaziak izan zituzten.

Gerraren pribatizazioan parte hartzen al da?

Tica Fonten txostenak gai garrantzitsua ukitzen du. Espainiak AEBetako, Indonesiako, Kanadako, Erresuma Batuko, Frantziako eta Belgikako enpresa pribatuei defentsa materiala erabilera pribaturako esportatzen diela dio txostenak. Hori eta 1990eko hamarkadan AEBetan eta Ingalaterran defentsa arloko hainbat multinazional sortu zirela kontuan hartuz (Blackwater, Amor Group, Northbridge Services Group edo Kellogg Brown & Root, adibidez), Tica Fontek galdera hau jartzen du mahai gainean: “Espainiak gerraren pribatizazioan parte hartzen duela adierazten al dute esportazio horiek?”.

Aditu katalanaren iritziz, informazio horretan kezka garria da armak enpresa pribatuei erabilera pribaturako saldu dakizkiekeela. Azken finean, “zer enpresa motak erosten ditu lehergailuak, misilak edo granadak eta erabilera pribaturako gainera? Zer lan jardueratan aritzen dira enpresa horiek? Eta zer egoera edo araupean izan daitezke lege-koak horrelako materialak erabiltzen dituzten enpresak?”. **n**

www.argia.com/
argia-astekaria/1946

helbidean, *Euskal Herria. Estatu-ko arma ekoizle nagusia*
erreportajea, Daniel Udaltzek
2004an idatzia.

**BERTSOLARI
TXAPELKETA NAGUSIA**
www.txapelketanagusia.eu

Azaroak 29, igandea 17:30ean
Belodromoa
DONOSTIA

IÑAKI GURRUTXAGA UXUE ALBERDI MAIALEN LUJANBIO
AITOR SARRIEGI JON MAIA ARKAITZ ESTIBALLES

Argia
Worlko
Bertsolari
Elkarte

Laguntzailea:

argia